

Nik PATXI LAPATZA GORTAZAR BENGEOA, Hernaniko udaleko Idazkariak honako hau ZIURTATZEN DUT

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2025EKO UZTAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:

Patxi Ibarguren Etxeberria
Itsaso Lekuona Legorburu
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:

Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
José Antonio Cuesta Solé
Blanca Alberro Aranzasti
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ricardo Crespo Rubio
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria

2025eko uztailaren 29an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

- 1. 2025-06-19KO OSOKO BILKURAREN 6-2025 AKTA ONARTZEA.**
- 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1498 DEKRETUTIK 2025DEKR1859 DEKRETURA.**
- 3. HERNANI MUSIKA ESKOLA PUBLIKOKO ZUZENDARITZA TALDEA BERRITZEA.**
- 4. MARIA CONCEPCION BEITIA OYARBIDEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**
- 5. EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**
- 6. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

1. 2025-06-19KO OSOKO BILKURAREN 6-2025 AKTA ONARTZEA.

Alkatea: arratsalde on. Ongi etorri uztaileko plenora.

Hasieran aipatu nahi dut ohiko deialdia seietan dela eta pleno honek seietan hasi behar zuela, baina seiak eta hamar dira eta hamar minutu beranduago hasi dugu saioa, jakin dugulako oraintxe mozioa aurkeztu duzuenei adierazi zaizuela gaurko plenoa beranduago zela. Akats bat izan da, sei eta erdietan; baina telefonoz hitz egiten aritu dira momentu honetan eta lehenago gerturatzeko prest zinetela adierazi digute. Seiak eta hamar dira eta iruditzen bazaizue hasi egingo gara.

Gaur, printzipioz, gai-zerrendan gai askorik ez daukagu, beraz, mozioen tartera ere segituan iritsiko gara. Ikusita publikoan ia jende dezente gerturatu zaretela, hasiera emango diogu osoko bilkurari.

Esan bezala, arratsalde on eta ohiko moduan, lehenengo puntua aurreko ekainaren 19an egin genuen osoko bilkuraren akta onartzea izango genuke. Ez dakit aktaren inguruan zerbait ba ote dagoen. Ez badago ezer, **onartu egingo dugu**.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR1498 DEKRETUTIK 2025DEKR1859 DEKRETURA.

Alkatea: bigarren puntua ere hilabetero osoko bilkurara ekartzen duguna da, hilabete honetan eman diren dekretuen berri ematea. 1.498 zenbakia duen dekretutik 1.859 zenbakidun dekretura. Zerrenda pasa zaizue. Dekreturen baten inguruan galderarik, zalantzarik? Ez badago ezer, aurrera.

3. HERNANI MUSIKA ESKOLA PUBLIKOKO ZUZENDARITZA TALDEA BERRITZEA.

Alkatea: erabakitzeko daukagun puntua Hernaniko Musika Eskola publikoko zuzendaritza taldea berritzearena da eta Axierrek azalduko digu gaia.

Axier Mingo: arratsalde on. 2025eko irailaren 1ean zuzendaritza aldaketa emango da Hernaniko Musika Eskolan. Klaustroak berak horrela erabakita, hurrengo bi ikasturtetarako. Eta, bertan, Roberto Pacheco García zuzendari bezala eta Iñaki Eguren Etxabeguren idazkari bezala gehituko da. Hemendik aprobetxatu nahi dugu azkeneko urteetan zuzendaritzan egon direnei eskerrak emateko, bai Lurdesi eta bai Anari, Musika Eskolako irakaslegoari eta klaustro guztiari. Eta, ongi etorria Robertori eta Iñakiri, zuzendaritza berriaren erronka horri gogoz eutsi diezaiotela eta jarrai dezatela Hernaniko Musika Eskolan gure haur, nerabe eta helduekin gogoz lanean.

Alkatea: Eskerrik asko, Axier.

Ez dakit gai honen inguruan zerbait esateko ba ote dagoen. Bozketara pasako gara zuzenean.

Hernani Musika Eskola publikoko zuzendaritza taldea berritzearen aldeko botoak? Aho batez onartzen da eta, hortaz, zuzendaritza taldea berri eta Axierrek esan bezala, ikasturte berriarekin batera zuzendaritza talde berria lanean hasiko da.

OSOKO BILKURA AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

AURREKARIAK

Hernaniko Musika Eskola Publikoko irakasle klaustroaren bilkura batzarrean 2021eko apirilaren 15ean hartutako erabakiak aintzat hartuz:

Datorren 2025eko irailaren 1ean ikasturte berria hasiko da "Hernani" Musika Eskola Publikoan. Ikasturte berriarekin, zuzendaritza taldea aldatzea suertatzen da, azken bi ikasturteotan talde hau osatu duten Lurdes Alkorta Pagadizabalek (zuzendaria eta sinatzen duena) eta Ana Martínez Muñoz andreak (idazkaria) osatu dute, eta beraien agintaldia amaierara iritsia da.

Musika eskola hau arautzen duen antolakuntza eta funtzionamenduko erregelamenduaren arabera, osoko bilkuran Hernaniko Udalbatzak 2015eko apirilaren 18an onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean uztailaren 27an argitara emandakoa, zuzendariaren izendapena gauzatzeko baldintzak hauek dira: «Zuzendaria Zentroan gutxienez bi urte daramatzen irakasle bat izango da, Klaustroak proposatua eta Udalbatzak izendatua; eta 2 ikasturteko agintaldia izango du» (Antolakuntza eta Funtzionamenduko Erregelamenduko 17.1 artikulua, lehen paragrafoa). 2001-2002tik 2002-2003 ikasturtera Arantza Alberdi anderea zuzendari izan zenetik ordea, agintaldi hori bi urtetakoa izan da.

Bestalde, musika eskola honetako irakasleen klaustroaren irizpidea izan da, zuzendari nahiz idazkari gaiek beste baldintza bat ere bete behar izatea: agintaldiak dirauen artean ordu lektibo batzuk mantendu eta eskolak ematen diharduten pertsonak izatea, hala, eskolaren eguneroko funtzionamendua gertuagotik ezagutzen dela bermatzen delakoan, ikasle eta gurasoekiko harremana estuagoa izaki.

Era berean, goian aipatu arautegiaren arabera, idazkariaren izendapena gauzatzeko baldintzak honako hauek dira: «Idazkaria zentroan gutxienez bi urte daramatzen irakasle bat izango da. Pertsona horrek —Klaustroak proposatua eta Udalbatzak izendatua— bi ikasturteko agintaldia izango du». (Antolakuntza eta Funtzionamoldeko Erregelamenduaren 18. artikulua, lehen paragrafoa).

Hori horrela, 2025eko maiatzaren 20an egin den Klaustro orokorrean, 2025-2026 eta 2026-2027 bi ikasturteetako agintaldirako zuzendaritzarako hautagai bakarrak Roberto Pacheco García (zuzendaria) eta Iñaki Eguren Etxabeguren (idazkaria) jaunak izan dira. Biek betetzen dituzte aipatutako baldintzak, alegia, bi urtetik gora daramatzate lanean eskola honetan, eta eskola ordu batzuk mantenduko dituzte.

Aipatu bileran Roberto Pacheco García eta Iñaki Eguren Etxabeguren aurkeztutako hautagaitzaren aldeko boza nagusitu da irakasleen klaustroan, emaitza hau izan zelarik:

Aldeko bozak: 16.
Zuriak: 3.
Baliogabeak: 1.

Hori guzti hori kontuan hartuta, Hernani Musika Eskola Publikoko irakasleen klaustroak hau proposatzen du:

1. Roberto Pacheco García jauna eskola honetako zuzendari izendatua izan dadin, 2025eko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra bitarte.
2. Iñaki Eguren Etxabeguren jauna eskola honetako idazkari izendatua izan dadin, 2025eko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra bitarte.
3. Roberto Pacheco García jaunari astean 8 eskola orduko murrizketa ematea, zuzendaritza orduak bete ditzan 8 eskola ordu horiek, dagozkien ordu ez lektiboekin. Ordu horiek betetzeko ordezkia beharko da.



4. Iñaki Eguren Etxabeguren jaunari astean 2 eskola orduko murrizketa ematea, idazkaritza orduak bete ditzan 2 eskola ordu horiek, dagozkien ordu ez lektiboekin. Ordu horiek betetzeko ordezkoa beharko da.

Kontuan hartu da Udalbatzarraren Antolaketa eta Ogasun Publikoko Batzordeak, 2025eko uztailaren 17an aho batez emandako irizpena.

Hernaniko Udalbatzarrak honako erabaki hau hartzea:

1. Hernani Musika Eskola Publikoko zuzendaria Roberto Pacheco García jauna izendatzea 2025eko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra bitarte.
2. Hernani Musika Eskola Publikoko idazkaria Iñaki Eguren Etxabeguren jauna izendatzea 2025eko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra bitarte.

4. MARIA CONCEPCION BEITIA OIARBIDEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkatea: *esan bezala, zuzenean ia mozioen tartera pasako gara gai-zerrendan erabakitzeko beste gairik ez daukagulako.*

Kasu honetan, Maria Concepción Beitia Oiarbidek aurkeztutako mozioa daukagu. Zaila egiten zait horrela esatea, baina horrela daukagu gai zerrendan, Kontxita Beitiak aurkeztutako mozioa. Kontxita, pentsatzen dut zuk defendatuko duzula. Mikrofonotik hitz egin, mesedez, aktan jasota geratu dadin.

Kontxita Beitia (publikotik): *arratsalde on, denoi.*

(Mozioa).

Mila esker zuen arretagatik.

Alkatea: *Eskerrik asko, Kontxita. Gauza bat da aipatu behar dudana. Erregistrotik erregistratutako dokumentua eta zuk irakurritakoa ez datoz bat. Bi gauza desberdin dira. Hemen Udaleko alderdi guztiei bi puntu zehatz onartzeko eskatzen zaie... Hori da guk gai-zerrendan daukaguna eta begiratzen ari naiz ea akatsen bat daukadan edo beste korporazio kideek ere hala ikusten duten... Erregistroa begiratzen ari naiz... Guk bozkatu beharko genukeena da erregistrotik sartu dena eta puntu horiek izango lirateke. Bi puntu horiek. Ez dakit aurrean daukazu... Ziurtatzen ari naiz horiek direla erregistratu zenituztenak. Orrialde bateko dokumentu bat da bi punturekin.*

Formalitateak mantentzeagatik, hori delako guk lantzeko eduki dugun dokumentua eta hori delako guk bozkatu behar duguna.

Orduan, hasierako testua bada testuinguraketa bat edo eta beltzez dauden bi puntu horiek dira nolabait egiten diren eskaerak. Nahikoa litzateke bi puntu horiek irakurtzearekin.

Kontxita Beitia (publikotik): *Bai, baina beno, pentsatzen nuen indar gehixeago emateko posibilitatea bazegoela.*



Alkatea: Bai, bai, bai, oso ondo eta testuinguraketa oso ondo; baina bozkatuko duguna, azkenean, bi puntu horiek dira. Horiek direlako eskaera zehatzak.

Kontxita Beitia (publikotik): Bi puntuak irakurriko ditut.

Alkatea: Bai, mesedez, formala izateko eta justu izateko defenditzen duzun puntu bera izateko guk eskuetan daukaguna.

Mikel Gurutzeaga: Nik uste dut aurreko paragrafoak ere irakurri ditzaketela, pixka bat... Nik uste beti bezala... bestela bi puntuak... Gu ere aurretik esaten diren gauza batzuen alde ez gaude. Orduan, horregatik.

Alkatea: Ados, egingo dugu, Kontxita, posible baldin bada, hala eskatuta, testu osoa irakurtzeko aukerarik badago... Dokumentua bere horretan, literal irakurtzeko aukera, hori delako guk esku artean eduki duguna.

Kontxita Beitia (publikotik):

Mozioa.

Alkatea: eskerrik asko, Kontxita, berriz irakurtzeagatik eta honekin zalantzarik ez dagoelako eta bat datozelako orain defendatutakoa eta idatziz sartutakoa. Honekin debatea egin dezakegulako eta erronda irekiko dugu, udal taldeek zerbait esateko baduten.

Jaione Aristregi: kaixo, arratsalde on.

Gure alderdia erabat errepublikarra eta erabat demokratikoa da. Erreferenduma proposatu ere egin gabe, errepublika independente bat aldarrikatzea gure printzipioen aurka doa. Beraz, kontra bozkatuko dugu.

Eskerrik asko.

Alkatea: eskerrik asko, Jaione.

Itsaso Lekuona: arratsalde on eta mila esker, Kontxita, aurkezpenagatik eta egindako hitzartze osoagatik.

Esan duzun bezala, ez da batere ohikoa horrela betetzea pleno aretoa eta, egia esan, plazera ematen du. Baita ere horrelako aldarrikapenak, Udala bezalako instituzioetara ekartzea. Guk bai uste duguna da horrelako aitortza bat egiteko baldintzak landu egin behar direla eta horretarako gehiengoak artikulatzea beharrezkoa dela. Bat egiten dugu, noski, edukian eta euskal errepublikara eramango gaituen bide-orri eraginkor bat, uste dugu, behar dugula. Prozesu bat abiatzea derrigorrezkoa da. Eta baldintza horiek sortzeko, pausoak eman behar direla.

Horregatik eta horrelako mozioek ere mugiarazten dituztelako erakundeak, hau onartzeko baldintzarik ikusten ez dugun arren, ondoren beste mozio bat aurkeztu dugu udal talde bezala.

Alkatea: eskerrik asko, Itsaso.



Honekin, beste errondarik ez baldin badago, bozketara pasako gara.

Kontxita esango dut, ez? Kontxita Beitia Oiarbidek aurkeztutako mozioaren aldeko botoak? Ez dago aldeko botorik. Kontrako botoak? Euskal Sozialistak, Elkarrekin-Podemos eta EAJ udal taldeenak. Abstentzioak? EH Bildu udal taldearenak.

BOZKETAREN EMAITZA

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	0	
KONTRA	7	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez 2. José Antonio Cuesta Solé 3. Blanca Alberro Aranzasti 4. Mikel Gurutzeaga Zubillaga 5. Ricardo Crespo Rubio 6. Jaione Aristregi Cao 7. Lurdes López Gorrotxategi
ABSTENTZIOAK	10	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra 2. Patxi Ibarguren Etxeberria 3. Itsaso Lekuona Legorburu 4. Aitor Lukas Solan 5. Axier Mingo Arruabarrena 6. Amaia Miner Canflanca 7. Aitor Huizi Izagirre 8. Urko Lazkoz Fernandes 9. Oier Agirresarobe Lizaso 10. Kistiñe Rodríguez Polaina

Hortaz, mozioa ez da onartzen.

5. EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkatea: honekin, Itsasok esan bezala, EH Bildu udal taldeak mozioa aurkeztu du euskal errepublikaren inguruan.

Itsaso Lekuona: esan bezala, guretzat garrantzitsua da gai hori udalbatza honetara ekartzea eta horregatik aurkeztu dugu honako mozio hau. Osorik irakurriko dut.

Mozioa.

Alkatea: eskerrik asko, Itsaso. Honekin ere erronda irekiko dugu.

Lourdes Lopez: guk eskatu nahiko genuke mozio hau puntuz puntu bozkatzea, batez ere bigarren puntua A, B eta C zatietan banatuta. Ez dakit posible den.



Alkatea: ados, arazorik ez. Egingo duguna da bigarren puntu horretan hiru azpi-puntu, bakoitza banan bana bozkatzeko.

Andoni Amonarraiz: arratsalde on.

Beste batzuetan bezala, gure autogobernurako sortu ditugun erakunde guztietan sinesten dugula errepikatu nahi dugu. Bakoitzaren gaitasunak, eta jakin badakigu bakoitzak zer helburu lor ditzakeen.

Hori esanda, gaur, beste udalerrri batzuetan egin den bezala, mozio bat ekarri da osoko bilkura honetara. Ez dugu uste aktak baino ibilbide luzeagorik izango duenik, aldeko botoak, kontrako botoak edo abstentzioak jasoko baitira. Asmo handiagoko helburu bat lortu ahal izateko eta helburu hori gure herriaren zentzuan oinarritu dadin, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu beharko litzateke. Hor, herriak aukeratutako kargu publikoek erabakiko dute Euskadik zer pentsatzen duen gai horri buruz eta hainbat eskumenek erabaki hori beste erakunde batzuen aurrean defendatu ahal izango dute. Mozio honen helburuak lortzeko beste bide bat izan liteke osoko bilkura honetan ordezkatura dauden alderdi politikoen Madrilgo Parlamentuan lan egitea, adostea eta negoziatzea.

Mozio honen gai zehatzean, mozio honetan proposatzen diren helburuen alde egon bagaitezke ere, berriro ere abstenitu egingo gara, uste baitugu ez dela eremu honetan aurkeztu beharko litzatekeen mozioa.

Alkatea: eskerrik asko, Andoni.

Bigarren erronda bat irekiko dugu.

Lurdes López: aipatu nahi dut 2023ko martxoaren 30ean Eusko Jaurlaritzan EAJk, EH Bilduk eta Elkarrekin-Podemos aurkeztutako mozio batean bigarren puntuko A eta B puntuak berdindirak direla. Hau da, ia onartuta dagoela mozio hau.

Alkatea: erronda ireki dugunez, ez dakit EAJk zerbait gehiago esan nahi duen.

Itsaso Lekuona: elkarrizketa hau gehiagotan izan dugu EAJrekin. Gure ustez, eta Ehunen mozioan ere jartzen zuen bezala, Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak eta udaletatik bultzatu daiteke eta indartu daiteke, aurretik eta ondoren, Parlamentuan onartu daitekeen beste aldarrikapen bat.

Alkatea: eskerrik asko, Itsaso. Honekin bozkatzera pasako gara. Puntuz puntu bozkatuko dugu, beraz, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioaren lehenengo puntuaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeak. Kontrako botoak? Euskal Sozialistak udal taldearenak. Eta abstentzioak? EAJ udal taldearenak. Bigarren puntura pasata, 2. A puntuaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Kontrakoak? Euskal Sozialistak udal taldea. Abstentzioak? EAJrenak. 2. B puntuaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Kontrakoak? Euskal Sozialistak. Abstentzioak? EAJ. Eta 2. C puntuaren aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrakoak? Euskal Sozialistak eta Elkarrekin-Podemos udal taldeak. Abstentzioak? EAJ.

Mozioren 1	Kopurua	Izen-abizenak
------------	---------	---------------



puntua		
ALDE	12	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra 2. Patxi Iburguren Etxeberria 3. Itsaso Lekuona Legorburu 4. Aitor Lukas Solan 5. Axier Mingo Arruabarrena 6. Amaia Miner Canflanca 7. Aitor Huizi Izagirre 8. Urko Lazkoz Fernandes 9. Oier Agirresarobe Lizaso 10. Kistiñe Rodríguez Polaina 11. Jaione Aristregi Cao 12. Lurdes López Gorrotxategi
KONTRA	1	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ricardo Crespo Rubio
ABSTENTZIOAK	4	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez 2. José Antonio Cuesta Solé 3. Blanca Alberro Aranzasti 4. Mikel Gurutzeaga Zubillaga

Mozioaren 2. A puntua	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	12	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra 2. Patxi Iburguren Etxeberria 3. Itsaso Lekuona Legorburu 4. Aitor Lukas Solan 5. Axier Mingo Arruabarrena 6. Amaia Miner Canflanca 7. Aitor Huizi Izagirre 8. Urko Lazkoz Fernandes 9. Oier Agirresarobe Lizaso 10. Kistiñe Rodríguez Polaina 11. Jaione Aristregi Cao 12. Lurdes López Gorrotxategi
KONTRA	1	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ricardo Crespo Rubio
ABSTENTZIOAK	4	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez 2. José Antonio Cuesta Solé 3. Blanca Alberro Aranzasti 4. Mikel Gurutzeaga Zubillaga

Mozioaren 2. B puntua	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	12	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra 2. Patxi Iburguren Etxeberria



		<ol style="list-style-type: none"> 3. Itsaso Lekuona Legorburu 4. Aitor Lukas Solan 5. Axier Mingo Arruabarrena 6. Amaia Miner Canflanca 7. Aitor Huizi Izagirre 8. Urko Lazkoz Fernandes 9. Oier Agirresarobe Lizaso 10. Kistiñe Rodríguez Polaina 11. Jaione Aristregi Cao 12. Lurdes López Gorrotxategi
KONTRA	1	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ricardo Crespo Rubio
ABSTENTZIOAK	4	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez 2. José Antonio Cuesta Solé 3. Blanca Alberro Aranzasti 4. Mikel Gurutzeaga Zubillaga

Moziaren 2. C puntua	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	10	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra 2. Patxi Iburguren Etxeberria 3. Itsaso Lekuona Legorburu 4. Aitor Lukas Solan 5. Axier Mingo Arruabarrena 6. Amaia Miner Canflanca 7. Aitor Huizi Izagirre 8. Urko Lazkoz Fernandes 9. Oier Agirresarobe Lizaso 10. Kistiñe Rodríguez Polaina
KONTRA	3	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ricardo Crespo Rubio 2. Jaione Aristregi Cao 3. Lurdes López Gorrotxategi
ABSTENTZIOAK	4	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez 2. José Antonio Cuesta Solé 3. Blanca Alberro Aranzasti 4. Mikel Gurutzeaga Zubillaga

Hortaz, puntuz puntu bozkatu eta gero eta kalkuluetan akatsik egin ez badut, mozio guztia onartutzat emango genuke.

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA

Hernaniko Udalak aldarrikatzen du:

1. Espainia eta Frantziako estatuaren aurrean estatus politiko berri bat lortzea bultzatu nahi dugula, Euskal Herria subjektu juridiko-politiko gisa eta euskal herritarrek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko duten eskubidea modu eraginkorrean aitortzeko. Gaur egun Euskal Herria osatzen duten hiru errealitate politiko-administratiboetatik abiatuta, eta bakoitzaren borondate kolektiboak errespetatuz.
2. Espainiako Konstituzioaren beharrezko erreformak funtsezko gai hauek jaso behar dituela:
 - a. Espainiar Estatuaren forma politikoa aldatzeko aukera eta Errepublikaren aukera gaitu.
 - b. Espainiar Estatuaren nazio anitzeko izaera aitortzea, eta, ondorioz, herriek duten erabakitzeko eskubidea.
 - c. Euskal Herriak demokratikoki eta bere borondatez estatus politiko berria adosteko egin behar duen prozesuan Espainiar estatuak oztoporik ez jartzeko bermeak artikulatzea.

6. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea: *Honekin esan dugu gaurko plenoan gai-zerrenda laburra zela eta honekin azken puntura pasako gara. Eskaera eta galderen puntura. Eskaera eta galderarik ez badagoen...*

Andoni Amonarraiz: *Hau da nire azken osoko bilkura bozeramaile gisa. Bozeramaile berria ni baino pixka bat hobeto tratatzea eskatzen dizuet.*

Alkatea: *Sorpresaz ez gaitu harrapatzen hitz egin dugulako, bagenekien azkena zela. Hitzartzeak bai. Esperientzia bat izan da elkarrekin aritu garenak; gure gora-beherekin. Onartu behar da. Baina Hernaniko Udalaren sentsazio on batekin eta ni gobernuan egon naizenetan ere, gainontzeko kideekin, izan ditugun gora-beheretatik harago, sentsazio on batekin jutea espero dut. Etapa berria ondo joan dadila eta Mikel, zuri, etxea ezagutzen duzu, baina kargu berrira ongi etorria. Andoni bezain ondo tratatuko zaitugu, beraz, ondo beti.*

Ongi etorri.

Honekin, eskerrik asko, denei. Kontxidak hasieran esan duen bezala, eskerrik asko uztail arratsalde batean gure pleno honetan konpainia egitera etortzeagatik. Aurrerantzean ere elkarrekin egoteko aukera izango dugula espero dut eta udaz gelditzen den zatian ondo pasa dezazuela. Gu osoko bilkurarekin irailean itzuliko gara.

Uda ona izan.

Hernanin, 2025eko uztailaren 29an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

